

KONTU KONTARI

Herriko Pasadizoak

J. Fernandorena

Antsorenatarrek, Hernaniko herrian, apal eta zintzoak izatez aparte, bazuten halakoxe ukitu berezia. Filosofo, artista... denetarik bazuten. Zentzu kritiko handia, eta funtsean, gaur egun esango genukeen bezala, beren kontura pentsatzen zekitenak ziren, horra.

Nik neuk Patxi zenarekin izan nuen harremana batik bat, eta bere azken urteetan izan ere. Zein gogotik egon ohi nintzen solasean harekin! Bestalde, haren esanak eta istorioak ere ez dauzkat ahanzteko. Kontatuko dut bat edo beste jarraian.

Behin, San Joan aurea zen, Ezkiaga plazako zuhaitz lerden horiek lorez beterik ikusita, berarengana joan eta beste gabe esan nion:

- Patxi, zure baratzako txoko batean (Leokadisti) erlauntza pare bat jarriko nuke, zure baimenarekin. Ezki-loreak badakizu ona izaten dela ezta egiteko.

- Bai, bai, jarri lasai.

Handik aste batzuetara hor dator Patxi irribarre batean.

- Aizu, feri kaleko gozogile horren pasteletan dabilzan erle horiek zure erleak ote dira?

Dudarik gabe, halaxe ziren.

Beste batean:

- Adiskide, "zerria galanta" zera zu. (Bagenuen hori eta horrenbeste konfidantza elkarrekin).

- Zer, bada?

- Erle gaixoak ezta berentzat egin eta zuk kendu (ohostu) egiten diezulako.

- Arrazoi duzu, Patxi, baina gainerako hegazti eta abereekin ere (haragia, esnea, arrautzak) ez al dugu gauza bera egiten? Eta enpresari batek (izen bat bota nion) zer egiten du, bada, azken batean? Langileen izerdia bildu, ezta?

- Bai, halaxe duzu, erantzun zidan piska batean pentsatzen egon ondoan.

Baina ez da horretan amaitzen pasadizo guztia, zeren eta hurrengo udazkenean joan natzaio kristalezko pota bat ezti hartuta eta esaten diot.

- Patxi, ezta ekarri dizut. Zure baratzako erleen ezta.

Zer egingo ote du? nion nik neure baitan. Ezti-potoari begira-begira jarrita, hala dio:

- Nik neronek ez dut jango, baina eraman egingo dut.

Egungo gora-beherak, osasun arazoak, gaztetako kontuak, azken urteotako Hernani eta munduaren aldaketa... zer ez genuen astintzen gure artean.

Beste behin, bat-batean harrapatu nahirik hauxe galdegin nion:

- Patxi, zuk hiltzeari beldurrik bai al diozu?

- Hara, Arantzazuko frailearena esango dizut. "Beldurrik ez, baina presarik ere ez".

Orain kontatzera noan honek ere ez zuen hiltze!o batere presarik.

Bai omen zen amona handi lodikote bat (izena eta guzti oroitzen naiz) eta aitona mehar flakoxta bat, zotza baino iharragoa eta ibiltari arina. Biak Oliadura Sakramentua hartuta ohean gaixorik. Amona hil lehenik eta bilobak hala dio aitonari:

- Aitona, halako (amonaren izena) hil omen da.

- Hil bada ondo zion. Nik geroxeago abiatuta ere harrapatuko dinat bidean.

Presa eta denbora, denbora eta presa. Beste istorio bat etorri zait orain burura. Hau ere Hernanin gertatua.

Halako baserritan bazela zioen mutil zegoen gizonezko bat. Mundu guztiak eskumuturreko erlojua bai eta berak ez. Noizbait ekarri diote. Jaiegun eta halamoduzko egunetan jazten omen zuen eta hura erakutsi nahirik ibiltzen, nonbait. Baina... baina, ordurik ez ezagutzen. Hor zegoen koxka. Eta batak eta besteak:

- Hi, Joantxo (besterik zuen izena), zer ordu diagu? Eta berak erlojua harro-harro erakutsiz...

- Hau baziak, hau ez zegok geldirik.

Hala-hala jakin ohi zuen orduaren berri hark. Eta neuk ere hala-hala jakin nituen Patxi zenaren ahotik hainbat eta hainbat gauza.

Pena handia hartu nuen hil zenean, nire oroitzenetan zulo bat uzterainokoa, hain zuzen.